

KOSTUEN EGITURA:

- Bidalketak
- Paketatzea + detaile txikiak
- Langileen soldata
- Publizitatea

Espainia osoan zehar (hasiera batean, soilik Gipuzkoatik) bidalketak egiten dituen enpresa bat izango denez, enpresa bat kontratatuko dugu bidalketarako, entrega azkarraren baldintza bete ahal izateko.

Arropa bidaltzeko, paketatu egingo dugu, kutxetan edo gutun-azaletan. Paketean, esker oneko gutunak eta opari minimalista ere sartuko dugu. Gure enpresa errekonozimendua izaten hasi dela ikusten dugunean, zigilu bat diseinatzen saiatuko ginateke gure logoarekin, kutxetan eta gutun-azaletan jartzeko.

Hasiera batean, enpresaren sortzaileak eta garraio-konpainiak lanean egongo gara, baina enpresa fruituak ematen hasten bada, jendea kontratatuko genuke lanarekin lagun gaitzaten, eta dirua langileen eta laguntzen diguten enpresen artean banatu beharko dugu.

Gure enpresa jende, hiri edo herrialde gehiagorengana iristeko, publizitatea aukera bezala hartzen dugu, sare sozialetan edo kalean dauden panel(hasiera batean txikiak) erabiliz. Publizitatea panelena bada, gastua sare sozialena baino handiagoa izango litzateke; izan ere, bigarren kasu horretan, publizitatea egiten eman beharko genukeen denbora izango litzateke gastu bakarra, baina enpresak garrantzia hartzen badu eta horretarako aukera ematen badigu, norbait kontratatuko genuke zati horretaz arduratu dadin.